



## Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>abade</b> apaiza, elizgizona	...baten batzuei barregurak eman zien, beste askok <b>abadearen</b> antzeko begiradak zuzendu zizkidaten.	132
<b>abegi</b> harrera	...hemen ematen zaien <b>abegi</b> onak ezarrira.	75
<b>adats</b> ilajea, melena	Ile- <b>adats</b> kizkur eta gorri bizi hura, azal zuri hura, begi handi eta argi haiek...	124
<b>aitzur</b> mozkorra	...berak jarraitu zuen tragoak ordaintzen, eta azkenean <b>aitzur</b> galantaz amaitu genuen biok.	14
<b>aldameneko</b> alboko	...Kultur Zentroaren alboko arkupeetan, haien emazteak-eta jolasgunearen <b>aldameneko</b> jarlekuetan...	25
<b>aldarte</b> umorea, jarrera	...nire hitzek ez zuten batere baretu lehen solairuko biztanle zuriaren <b>aldarte</b> ...	205
<b>algaraka</b> karkaraka	...barrez hasi zen, bere erara, <b>algaraka</b> zoroen pare espantukoa, primeran pasatzen ari zen...	129
<b>amarruzale</b> tranpatia, iruzurtia	...guztiak dira joko horren partaide <b>amarruzaleak</b> ...	178
<b>apeta</b> guraria, kapritxoa	...edozein momentuan izorratu ahal ninduten, horretarako <b>apeta</b> izanez gero.	102
<b>arlote</b> zarpaila, bagabundoa	...beste bi <b>arlote</b> errumaniarraz eta Txemaz arduratu ziren.	233
<b>arnasari buelta eman</b> aire hartu, birrikak airez bete	Izan ere, zezensuzkoaren tramankulu zipildua kendu bezain laster, <b>arnasari buelta emateko</b> astirik gabe, bere estiloko atzaparkada pare bat jo zizkidan...	
<b>arreta zorroztu</b> adi entzun	<b>Arreta zorrozten</b> saiatu nintzen, baina beste aldekoak ez zuen ezer esan.	223
<b>arroil</b> kanala	Trenbideen <b>arroila</b> gaineko Kantaloja zubia zeharkatutakoan afrikar batzuk ikusi nituen...	15
<b>artegatasun</b> urduritasuna	Badakit-berrekin nion, <b>artegatasuna</b> disimulatzeko ahaleginez.	224
<b>ase ezin</b> diruzalea	Liburu-banatzaile <b>ase ezinak</b> , ohi bezala, diruaz ez kezkatzeko esan zidan.	14
<b>atalasera</b> erlaitza, gunetxoa	...aditu nuen Lolesen ahotik ateko <b>atalasera</b> iritsi orduko.	149
<b>ateraldi</b> burutapena, okurrentzia	Grazia egin zien nire <b>ateraldiak</b> ertzainei eta irribarrez hurbildu zitzaidan beltzaran txikia.	103
<b>atoan</b> berehala	<b>Atoan</b> damutu nintzen esandakoaz.	105
<b>atsekabe</b> disgustua	...esan zidan bat-batean eta, hitz haiek sentiarazi zidaten <b>atsekabea</b> gorabehera...	91
<b>atzaparkada</b> harramazkada, kolpetxo latza	...bere estiloko <b>atzaparkada</b> pare bat jo zizkidan sorbaldan.	14
<b>azti</b> magoa, belagilea	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, <b>azti</b> , arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa...	17
<b>barealdi</b> lsaitua	<b>Barealdi</b> txiki bat sentitu nuen nire korukidea begiz jo nuenean...	128
<b>barik</b> gabe	...telebistara barik niri begira eta, halako baten, zera esan zidan...	150
<b>begitandu</b> iruditu	Gezurra modu sinesgarrian bota nuela <b>begitandu</b> zitzaidan.	211
<b>begiz jo</b> aukeratu	Barealdi txiki bat sentitu nuen nire korukidea <b>begiz jo</b> nuenean...	128




<b>bezpera</b> aurreko eguna	... <b>bezperan</b> emakume artean izan nuen arrakasta sinesgaitzak.	206
<b>bistadizoa bota</b> begiratu egin	...San Frantziskoko kalearen goi aldeko lokal susmagarriei <b>bistadizo bat bota</b> ondoren...	178
<b>bolada</b> denboraldia, sasoa	...liburu-saltzaileak deitu zidanean ez nengoen <b>boladarik</b> onenean.	13
<b>bosteko estutze</b> eskua ematea, agur gisa	Guztira hiruna <b>kikarada</b> te hartu genituen eta, azkenean, bosteko-estutzea etorri zen.	143
<b>bulka</b> inpultsoa, bultzatu	...esan nion, aldi berean atzetik <b>bulka</b> egiten niola.	204
<b>damutu</b> arrepentitu, garbaitu	Nik ez daukat harremanik <b>jendilaje</b> horrekin, eta detektibe zuri baten ordeztu kontratatzeagatik ere damutzen hasita nago.	175
<b>debalde</b> dohainik	Ez, berrogeian. Eta ilea <b>debalde</b> moztu dit.	140
<b>dekadente</b> zaharkitua, gainbeheran dagoena	Mozoilo Beltza Gorte kaleko putiklub <b>dekadenten</b> artean dekadenteenetakoa zen...	126
<b>dena delakoa</b> horrelako zerbait	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti, arazo-konpontzaile, ikertzaile edo <b>dena delakoa</b> ...	17
<b>egosi</b> likidoan berotu	Urdaiazpiko <b>egosia</b> ez zaidalako gustatzen...	9
<b>entzungor</b> gorrarena egin, gorrentzun egin	...bidaideen protestei <b>entzungor eginez</b> .	8
<b>eskupeko</b> propina	Nahi duzu <b>eskupekoa</b> , bai ala ez? –premiatu ninduen.	219
<b>espantuka</b> nabarmenduz, harropuzkeriaz	...barrez hasi zen, bere erara, algaraka zoroen pare, <b>espantuka</b> , primeran pasatzen ari zen...	129
<b>espitoso</b> euforikoa	...era guztietako txikizkako salerosketan aritzen den ijito ñaño <b>espitosoa</b> ...	177
<b>estaldura</b> kobertura, seinalea	...beti asmatzen zuen aitzakiaren bat hala jokatzeko: <b>estaldura</b> eskasa, sakelakoa ez zebilela ondo...	26
<b>etenik gabe</b> jarraian	Kalea kameraz josita dago eta polizien autoak ia <b>etenik gabe</b> egoten dira toki estrategikoan, aparkatuta...	76
<b>etxebako</b> arlotea, eskekoa	... <b>etxebako</b> bat, kartoi batzuen gainean eta garagardo botila huts baten alboan lo egiten zuena.	229
<b>fardel</b> maleta, paketea	Denbora <b>fardel</b> artean etzanda eman izan behar dut...	9
<b>fardela utzi</b> marroia utzi, konpromisoan utzi	...ez zen bidezkoa pisukideei imajinatzen ez zuten <b>fardela uztea</b> hauts zuriaren kontura...	138
<b>gainez egin</b> gainezka, desbordatu	Etxe hartan sartzean <b>gainez egiten</b> zidan kemena joanda zegoen guztiz.	221
<b>geldo</b> motela	...karrajuko pauso <b>geldoak</b> , isilpeko itxaronaldia...	213
<b>gogaitu</b> aspertu	Zaindaria azken mailako puta horien irudiez <b>gogaitu</b> eta, bizkarra aulkiaren atzealdean ezarririk, atsedean hartu du.	227
<b>gomuta</b> oroitzapena, akordua	...gustuko zituzten antzinako <b>gomuta</b> ustez gogoangarriak...	161
<b>gonbit egin</b> gonbidatu	...ez nuen ezer erantzun eta keinu batez kale itxian sartzeko <b>gonbit egin</b> zidan.	101
<b>gorabehera</b> aparte, horrez gain	...esan zidan bat-batean eta, hitz haiek sentiarazi zidaten <b>atsekabea</b> gorabehera...	91



<b>gorpu</b> hilotza, hildakoa	...baina sartu orduko irten omen ziren hortik, <b>txahala botatzen</b> gorpuaren itxuraren kontura.	163
<b>gorpuzkin</b> gorputz zatitxoa	...oihu gero eta itoagoak ahoan sartzen zizkieten <b>gorpuzkinen</b> erruz...	160
<b>gosekil</b> txiroa, behartsua	...horrelako <b>gosekilen</b> artean hasiak ziren gizonezkoak erreklutatzen...	12
<b>halandaze</b> horregatik, ba	...handitzea besterik ez zuen ekarriko, <b>halandaze</b> bat-batean moztu eta, agur ere esan gabe, dendariari bizkarra eman eta kalera irten nintzen.	140
<b>higuingarri</b> nazkagarria	...eta burutazio <b>higuingarri</b> bat izan nuen.	144
<b>hornitu</b> ekipatuta, gauzaz betea	— Asmatu egin duzu, eta ondo <b>hornituta</b> etorri da gainera.	84
<b>hurbildu</b> gerturatu, hurreratu	Grazia egin zien nire ateraldiak ertzainei eta irribarrez <b>hurbildu</b> zitzaidan beltzaran txikia.	103
<b>ijito</b> motxailea, buhamea	Edonola ere, plazak batik bat <b>ijitoen</b> eremua izaten jarraitzen zuen...	25
<b>iltzatu</b> inkatu, indarrez sartu	Adore guztia ipini nuen nire helburua lortzearren, baina idiak beherantz egiten zuen bultza, laztabinaren punta lurrean iltzatuz...	171
<b>irauli</b> bolkatu, azpikoz gora jarri	...ustekabea gurpildun aulkia <b>irauli</b> eta gizona lurrera jausi zen...	171
<b>irriño</b> irribarretxoa	Bibliotekariak beste <b>irriño</b> batez amaitu zuen berbaldia eta nik nahasturik so egin nion.	29
<b>iseka</b> burla, trufa	<b>Isekaren</b> eta errietaren arteko tonuaz egin zidan galdera...	129
<b>itaunka</b> galdezka	Edonola, <b>itaunka</b> alferrik ari nintzelako sentiera izan nuen.	22
<b>jeloskor</b> bekaiztia, zeloak dituen	...eskerrak batere <b>jeloskorra</b> ez zen...	195
<b>jendilaje</b> jende txarra, jendaila	Nik ez daukat harremanik <b>jendilaje</b> horrekin, eta detektibe zuri baten ordezu kontratatzeagatik ere damutzen hasita nago.	175
<b>jenero</b> merkantzia, salerosgaia	Teorian janaria besterik ez zuen saltzen, baina praktikan bestelako <b>jenero</b> asko ere bazeukan...	97
<b>karraju</b> pasilloa, pasabidea	... <b>karrajuko</b> pauso geldoak, isilpeko itxaronaldia...	213
<b>kauri</b>	...teorian nire ogibide nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, <b>azti</b> , arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa...	17
<b>kemen</b> adorea, ausardia	Etxe hartan sartzean gainez egiten zidan <b>kemena</b> joanda zegoen guztiz.	221
<b>kikarakada</b> katilu bete	Guztira hiruna <b>kikarada</b> te hartu genituen eta, azkenean, bosteko-estutzea etorri zen.	143
<b>kilikadura</b> kitzikapena, zirrara bezalakoa	Momentu hartan halako <b>kilikadura</b> bat sentitu nuen gorputzean...	181
<b>kizkur</b> kirrua	Ile-adats <b>kizkur</b> eta gorri bizi hura, azal zuri hura, begi handi eta argi haiek...	124
<b>lantzean behin</b> noizean behin, batzuetan	...baina beldurrez begiratzen zidan <b>lantzean behin</b> ...	215
<b>lar</b> oso, gehiegi, sobera	Zelan zabilta lan aldetik aspaldi honetan? — <b>Lar</b> ondo ez.	13
<b>laudorio</b> goraipamena, alabantza	Aitaren <b>laudorioek</b> lortu dute pixkanaka mutikoari atsekabea pasatzea.	10



<b>laztabina</b> barrena, zulatzeke burdin haga	...belaunikatu nintzen, gogor oratuta zeukan <b>laztabinaren</b> punta aztertzeke asmoz.	171
<b>lez</b> bezala, moduan	..."gogoratu gero ito behar zaitudala" adieraziz <b>lez</b> .	132
<b>mairu</b> moroa	Zuk hamasei euro eskaini zenidalako, eta <b>mairu</b> marikoiak hogeita hamar.	140
<b>mairu</b> moro	...bestalde, <b>mairu</b> bat ere ez dela hurreratuko horiekin eztabaidatzera.	226
<b>mamurtu</b> hausnartu, buruan erabili	Halako ideiak <b>mamurtuz</b> joan nintzen hurbiltzen nire atarira, auzoari izena ematen dion San Frantzisko kale luzean zehar...	17
<b>marikoi</b> atzelaria	Zuk hamasei euro eskaini zenidalako, eta mairu <b>marikoiak</b> hogeita hamar.	140
<b>marmar</b> ahapeka esana	...eta marmar desatsegin bat bota ondoren, pasabidetik aurrera eraman gintuen...	213
<b>mesfidantza</b> errezeloa, deskonfiantza	Nire <b>mesfidantza</b> sumatuz edo, gizontxoak beste argudio batekin probatu zuen.	19
<b>nagikeria</b> alferkeria	Hamaikak pasatxo ziren, <b>nagikeriaz</b> jaiki eta ostera txiki baten ondoren...	27
<b>noiz edo noiz</b> batzuetan	Garanez era arduratu da <b>noiz edo noiz</b> .	20
<b>ñaño</b> ipotxa, kakanarrua	...era guztietako txikizkako salerosketan aritzen den ijito <b>ñaño</b> espitosa...	177
<b>ogibide</b> lanbidea	...teorian nire <b>ogibide</b> nagusia izan behar zuena: kauri-botatzaile, igarle, azti, arazo-konpontzaile, ikertzaile edo dena delakoa...	16
<b>oharkabe</b> nabarmendu gabe, konturatu gab	...orduko hartan ere komunera egin zuen bisita bat aprobetxatu behar izan nuen <b>oharkabean</b> ihes egiteko.	14
<b>olgatu</b> jolastu	...umeak inguruan <b>olgatzen</b> ziren, txikienak parke txikiko tramankuluetan eta kozkorrak futboleant...	25
<b>ostu</b> lapurtu, ebatsi	Nire ordenagailua <b>ostu</b> didate!	7
<b>otu</b> bururatu, okurritu	Cisseren buruan sartzen saiatu nintzen eta ideia bat <b>otu</b> zitzaidan...	116
<b>ozta-ozta</b> justu-justu	Haren burua <b>ozta-ozta</b> ailegatzen zitzaidan bularrera eta hantxe tinkatu zuen segundo batzuetan.	18
<b>pajita</b> zia, ihia	...sei urteko mutikoa, kolakao erraldoia zurruputzen ari zena <b>pajita</b> baten laguntzaz...	119
<b>pamela</b> kapela mota	...emakumezkoak aldizkarietakoak bezalako soinekoez eta <b>pamelaz</b> ...	129
<b>patxadaz</b> lasai	Urkiolan afalduko dugu biok <b>patxadaz</b> , eta gero, oraindik agertu ez bazara...	194
<b>pot egin</b> sats eginda, birrinduta	<b>Pot eginda</b> nindoan etxera bueltan uztailaren hasierako gau sargori hartan...	11
<b>premiatu</b> estutu, presio egin	Nahi duzu eskupekoa, bai ala ez? – <b>premiatu</b> ninduen.	219
<b>purrustada</b> protesta keinua, erremuskada	...ohearen beste aldean etzan zen ahoz gora <b>purrustada</b> txiki bat eginez...	193
<b>sasiamorante</b> maitale berezia	Nire <b>sasiamorante</b> bitxiak txorizo bokata bat ekarri zidan...	153
<b>sentiberatasun</b> sentsibilitatea	Bistan zegoen bost axola zitzaiela nire <b>sentiberatasuna</b> mindu ote zuten.	108



<b>sentiera</b> susmoa, sentipena	Edonola, itaunka alferrik ari nintzelako <b>sentiera</b> izan nuen.	22
<b>sikera</b> behintzat, bederen	Txemaren erantzunak, ardura bat kentzeaz gainera, izandako azken atsekabeak apurtxo bat, <b>sikera</b> , leuntzen lagundu zidan.	94
<b>sinesgogor</b> sinesgaitz	...oso-oso dotera jantzitako gainerako gizon-emakumeak <b>sinesgogor</b> edo nahastu aurpegiak ipini zituzten...	129
<b>so egin</b> begiratu, begitu	Berak, ostera, egindakoa astakeriaren batera errudun sentimendurik gabe <b>so egiten</b> zidan.	110
<b>sofistikatu</b> landuagoa, konplexuagoa	Zenbait <b>sofistikatuagoa</b> izateko askoz atzerago jo behar nuen...	73
<b>sumatu</b> igarri, nabaritu	Nire mesfidantza <b>sumatuz</b> edo, gizontxoak beste argudio batekin probatu zuen.	19
<b>susperraldi</b> errekuperazioa	...farmazian lan egiten hasi zenean pikutara joan zen bere bizitzarekin hasitako <b>susperraldia</b> .	147
<b>totelka</b> zezelka, errepikatuz hitz eginez	...esan nuen, <b>totelka</b> .	151
<b>traste</b> tramankulua, trepeta	...itaundu nuen, nahiz eta atsoak <b>traste</b> harekin larregiko interesik ez.	85
<b>txahala bota</b> botaka egin	...baina sartu orduko irten omen ziren hortik, <b>txahala botatzen</b> gorpuaren itxuraren kontura.	163
<b>txatartegi</b> txatarra biltokia	Lehenik eta behin ijitoen <b>txatartegi</b> fokatu du...	227
<b>txikizkako</b> gauza xeheak ( <i>al por menor</i> )	...era guztietako <b>txikizkako</b> salerosketan aritzen den ijito ñaño espitosoa...	177
<b>txortaldi</b> larru-jotzea	Enarerekin izandako <b>txortaldi</b> bikoitza...	207
<b>ufada</b> putzaldia, purrustada	Ondorioa beste <b>ufada</b> ozenago bat izan zen.	171
<b>ume kozkor</b> hazia, apur bat nagusia	...umeak inguruan olgatzen ziren, txikienak parke txikiko tramankuluetan eta <b>kozkorrek</b> futboleant...	25
<b>urritasan</b> eskasia	...nirea bezalako baxu-ahotsen <b>urritasanari</b> esker, antza, eta kopuru ederrak jaso nituen...	15
<b>ustekabea</b> nahi gabe, txiripaz	...baina han, <b>ustekabea</b> , nire begi erdi itxiak atoan zabaldu ziren...	17
<b>uxatu</b> ihes eginarazi	Lanean ari ziren bitartean begiluzeak <b>uxatzea</b> ez zen arazoa izango halako jendearentzat...	160
<b>zabu</b> txinboa, kolunpioa	Askok egon dira aldi berean <b>zabu</b> eta txirristetan.	156
<b>zantzu</b> aztarna, seinalea	...beste organo batzuk zauriz josita, eta bestelako torturaren <b>zantzu</b> ugari ageri omen ziren, ...	134
<b>zerraldo</b> hilkutxa	...hemendik gutxira urrezko <b>zerraldoa</b> erosteko ez ba da.	167
<b>zikoitz</b> zekena, diruzalea	...eta panpina bat izan nintzen sorgin <b>zikoitz</b> haren atzaparretan.	221
<b>zipildu</b> erre xamarra ( <i>chamuscado</i> )	Izan ere, zezensuzkoaren tramankulu <b>zipildua</b> kendu bezain laster, arnasari buelta emateko astirik gabe, bere estiloko atzaparkada pare bat jo zizkidan...	
<b>zipriztindu</b> txipliztadaz bete	...istorio hark zenbateraino <b>zipriztindu</b> ahal nuen mamurtuz.	79
<b>zurrapatu</b> xurgatu, hurrupatu	Enare berriro etzan zen alboz nire aldera eta belarriko lobulua <b>zurrapatu</b> zidan.	194